

Papergintzaren negozio iluna azaleratu duen liburua

Hernán López Echagüe idazle eta kazetari argentinarrek Uruguai ibai ertzean eraiki nahi dituzten bi paper-fabrika erraldoien aurkako liburua idatzi du. Mugimendu herritarrei jaramonik egin gabe naturan eta gizakiengan ondorio kaltegarriak izango dituen –eta hemen erraustegiarekin dugun eztabaida gogoratzen duen– erabakiaz hitz egin du gurekin. Duela bi aste, Argentina eta Uruguaiako gobernuetako ordezkariak Juan Carlos I.a Espainiako Estatuko erregearen gidaritzapean bildu ziren Madrilén; ez zuten akordiorik lortu, baina hurrengo hilean berriaz biltzekoak dira, gaia aztertzeko.



López Echagüe liburu aurkezpenean, Julia Coccaro Fray Bentosko Bizitza, Lana eta Garapen Iraunkorraren Aldeko Mugimenduko kidea alboan duela.

AZKEN HILABETEOTAN, Argentinan zehar dabil Hernán López Echagüe, *Crónica del Ocaso* (Gainbeheraren kronika) kaleratu berria duen liburua aurkezten. “Ongietorria izan dadila gortasun orokorraren kontrako liburu hau –esan du Eduardo Galeano kazetari eta idazle uruguaiarrak–, itsasertzaren egoera larriaren ezinbesteko erradiografia baita”.

Erradiografia horren abiapuntu eta lehenengo artikularen oinarri Nueva Palmirako arrantzaleek bizi duten lan eskasia izan zen. Ehun kilometrorra, Argentinarekin muga egiten duen itsasertzeko Fray Bentos hiri uruguaiarrean aurreikusi dituzten paper-fabrika erraldoi bik jarraipena eman zioten liburuari, Uruguai ibai ardatzak jasan dezakeen sarraskia salatu nahian. Autoreak berak esan digunez, “badira hogeit urte Munduko Bankua Uruguain eukaliptoaren eta pinuaren monolaborantza sustatzen hasi zela. Hasiera batean, Europako eta Kanadako papergintza hornitzeko egin zuten, baina gaur egun errentagarriagoa ateratzen zaie paper-

**ALVARO HILARIO
PÉREZ
DE SAN ROMÁN**

fabrikak hona ekartzea”. 1992an, Munduko Bankuko lehendakariordea zen Laurence Sumnersek esandakoak zerikusi handia dauka mota horretako erabakiekin: “Bazen industria zikinak Hirugarren Mundura eramateko garaia –bota zuen–. Alde batetik, herri horiek oso garbi daude eta handia da hondakin toxikoak hartzeko duten gaitasuna; bestalde, lansariak eta balizko isunak txikiak direnez, merkeagoa izango da prozesu osoa”. Baina Summersen teoria bihozgabeak ez ziren hor bukatu: “Gai kantzerigenoek oso epe luzean egiten dute lan –gaineratu zuen– eta herri txiroetan jendea hil egingo da minbizia agertu baino lehen. Hala, ondorioak ez dira hain larriak izango”.

Finlandia eta Espainiako enpresak tartean

Horixe da Finlandiako Botnia eta Espainiako Estatuko ENCE (Zelulosa Nazio Enpresa) enpresek egin dutena. Ez dezagun ahaztu ENCErena dela Galizian Arousako itsasadarra suntsitu zuen fabrika eta haren zuzendaria –epai-

tegieta zigortua— dugula Uruguako egitasmoa kudeatzen. Munduko Bankua da, jakina, proiektu horiek diruz laguntzen dituen erakundea.

“Paper-fabrikek dioxinak eta furanoak sorrazten dituzte; kasu honetan, kloroak eta egurra- ren ligninak bat egitean agertzen dira; toxikoak dira oso eta ez dira denboraren poderioz desagertzen —azaldu du Echagüek—; izakien ehun adiposoan metatzen dira eta kate trofikoan zehar gero eta handiagoa da metaketa”. Gizakioi ere, elikaduraren bidez heltzen zaizkigu. Erraustegiak dira dioxinen beste iturri nagusia; kasu honetan, dioxinak arnasten ditugu. Biak dira euskaldunok gertutik ezagutzen ditugun arazoak. Félix Payo ikertzai- le asturiarrak esan duenez, “erraustegi modernoek ez dutela dioxinarik eragiten ohiko gezurretako bat da”; kontuan izan behar dugu, atmosferan ez ezik, haien hondakinetan ere aurkitzen direla eta “arazo hau, egun, ez dagoela konponduta”. Dioxina suntsikorra da oso: hormona-maila eta ugaltze- aparatua erasotzen ditu (testikulu endurtuak, abortuak, jaiotzetiko malformazioak, emankortasun urritasuna...). Kalte larriak eragiten ditu aza- lean eta nerbio-sisteman, eta garunaren garapena oztokatzen du. Beruna, merkurioa eta kadmioa dira, besteak beste, erraustegiekin sortzen dituzten beste hondakin toxikoak. Hain azalpen argiekin, Osvaldo Bayer historialari argentinarrek proposa- tu du López Echagüeren liburua eskolatan testu liburu bezala erabiltzea.



Protesta ENCE enpresaren Madrilgo egoitzaren aurrean, Uruguain paper-fabrikarik ez dezala egin eskatzeko.

Eukaliptoaren monolaborantza papergintzari lotuta dago eta paper-fabriken gatazkan ezin dugu hori bistatik galdu. 1988an, Uruguain, pinuek eta eukaliptoek 26.000 hektarea betetzen zituzten; egun, 750.000 hektarea dira monolabo- rantzaren mesederako daudenak. “Kezkatzekoa da —dio Echagüek— Basoak eta Baliabide Natura- lak Sailaren ardura duen Andrés Berterrechek adierazi duena: egun, hektarea horiek lurraldea- ren %4 baino ez direla eta beraz kopuru hori bikoizteko arazorik ez duela ikusten”. Botoen %51 lortuta gobernura heldu zen FA (Frente Amplio) alderdi ezkertiarren jarrera eztabaida-

Historia, ondarea eta oroimena

Ikastaro telematiko eta praktikoak

- **1936ko gerra. Oroimena eta Ahanztura Hego Euskal Herrian**
125 ordu.
Teoria on-line. Praktikak Indusketa Arkeologikoekin. Narrazio digitalak.

- **Nafarroako Erresumaren Historia eta Gazteluak**
230 ordu.
Teoria on-line. Praktikak Indusketa Arkeologikoekin.

- **Kultur Ondarearen Azterketa**
50 ordu.
UEUko Udako Ikastaroen barne.
Saio praktikoak Orbaitzetan.

matrikula:

- martxoaren 19tik
apirilaren 29ra (1936ko gerra)
maiatzaren 29ra (Nafarroa)
ekainaren 29ra (Ondarea)

• www.ueu.org

antolatzaileak:



tsua da. “Hauteskunde kanpainan kontrakoa esan bazuten ere, ez dute Munduko Bankuak diruz lagundutako eta aurreko gobernuek pentsatutako planarekin aurrera jarraitzeko problemarik izan eta paper-fabriken eta monolaborantzaren kontrako ahotsak isilarazi dituzte Uruguain eta euren alderdian bertan”.

Eukaliptoarena ez da gauerdiko ahuntzaren eztula. “Eukalipto gramo bi lortzeko, litro bat ur behar dute. Botniak eta ENCEk urteko miloi bat eta erdi tona zelulosa ekoiztu nahi dute eta zelulosa tona bat erdiesteko hiru egur tona behar dira; hau da, aurreikuspenak betetzeko 2.250 miloi metro kubo ur behar dituzte”. Horrez gain, eukaliptoak lehortea eragiten du. Uruguaiako Paysandú, Río Negro eta Soriano barrutietan, monolaborantza dela-eta, gobernuek kamioi zisternak bidali behar ditu. Aldi berean, lur haietako ohiko ekonomiak (abeltzantza, batez ere) porrot egin du. Baso artifizial horietan ez dago txoririk eta herbizidek alboan duten guztia lehortzen dute, suteak errazten. Gogora ditzagun, adibidez, Galiziak udaro jasaten dituenak.

Bestalde, esanguratsuak izan dira zenbait tupamaro historikoren adierazpenak: Julio Marenales eta *Ñato* Fernández Huidobro senatariek, besteak beste, “papera ipurdia garbitzeko” erabiltzen dutela esan diete ekologistek. Laborantza ministro Pepé Mujicak berriz, ondorengo adierazpenak egin ditu, axolagabe: “Paper-fabrikekin edo haiek gabe ibaiak zikindu egingo dugu”. Ez dute esan zelulosaren %80 enpresa handien bilgarriak egiteko erabiltzen dela eta %18 komuneko papera egiteko. Liburuak, aldizkariak edota egunkariak kaleratzeko %2 baino ez da erabiltzen.

Gainera, “Uruguain, paper-fabriken auzia abertzaletasun kontu bihurtu dute eta alderdi guztiek bat egin dute. Eromen hutsa! Eduardo Galeano traidoretzat jo dute, paper-fabriken kontra azaldu baita. Ez diote hedabideetan tokirik egiten. Gaixorik, nekatuta, Bartzelonara joana da”. Eta Echagüeren liburua ezin da Uruguain lortu, nahiz eta Buenos Aires bi ordura egon.

Protestak eta zubi mozketak

Hala ere, etengabekoak dira paper-fabriken aurkako ekimenak, bai Argentinako Gualaguaychú hirian, bai Uruguai aldean, Fray Bentosen. Oihartzun handiena Gualaguaychúko Herri Batzarrak jaso du: urtebete daramate ibai bertsaldetan dagoen Fray Bentoserako nazioarteko zubia mozten. Berriagoak dira Concordia eta Colón hirietako batzarrak, baita han egiten diren zubi mozketak ere. Baina Botniak obren %90 eginda dauka eta oso posiblea da aurtan bertan zelulosa oreka ekoizten hasia. ENCE enpresak, protestak saihestu nahian, Nueva Palmiratik hogeita

Itsasertzeko biztanlea

Kazetari zorrotza eta idazle aparta dugu Hernán López Echagüe argentinarra (Buenos Aires, 1956). 70eko hamarkadan, Argentinako diktaduraren aurka egiten zuen *montonero* erakunde armatuaren partaide izateagatik Sao Paulora (Brasil) erbesteratua izan zen. Duela zortzi urte berriz, Argentinako eredu politiko ustelaren inguruko bere ikerketengatik pairatu zituen erasoak medio Uruguaiako Nueva Palmira herrira joan behar izan zuen, Paraná eta Uruguai ibaiak La Platakoa erditzen duten paraje ikusgarriara. Itsasertzeko biztanlea da beraz.

hamar kilometrora, Colonia del Sacramento ondoan, kokatu nahi du bere paper-fabrika.

“Gualaguaychúko batzarrean mota guztietako jendea dago. Egia da paper-fabrika beste inon egotekotan, haietako asko ez zirela han izango; badakizu, ‘ez nire lorategian’ esaten duten horiek”, azaldu digu idazleak. Uruguai ibaiak dituen arazoan artean nagusienetakoa soja transgenikoarena dugu. Argentina munduko bigarren ekoizlea da eta Monsanto sorturiko hazi artifizial honek derrigorrez behar dituen plagizidak eta agrotoxikoak ibaietan eta lurpeko uretan hedatzen dira. 1995 eta 2004 urteen artean, 250.000 etxalde txiki desagertu dira sojaren erruz. Argentinako lur emankorren %60 sojaz beteta daude eta bertako basoa hilzorian dago.

Oswaldo Moussou Unión Cívica Radicaleko (Alfonsinen eta De la Rúaren alderdia) zinegotzia da Gualaguaychú, eta batzarreko koordinatzailea. López Echagüeren arabera, Moussouk lehen soja transgenikoa landatzen zuen, baita agrotoxikoak saldu ere, egun alkatetzarako hautagai denez negozio horiek saldu dituen arren. “Gualaguaychú –dio–, sarraskia geldiarazteko eredu ekonomiko oro ezabatu behar dela pentsatzen dutenak gero eta gehiago dira. Ildo beretik doaz Fray Bentosko Bizitza, Lana eta Garapen Iraunkorraren Aldeko Mugimendukoak. Gaurko eredu ekonomikoa agortuta dago”.

Mintzagai dugun zonaldean Guaraní akuiferoa dago: Paraguai, Uruguai, Brasil eta Argentinaren artean hedatzen diren 1.200.000 kilometro koadro; han diren ur erretserbak nahiko dira datozen berrehun urteotan mundu osoko biztanleriak hornitzeko. Eta hori da lohitu nahi duten ur preziatua. “Douglas Thompkins enpresari estatubatuarrek 100.000 hektarea erosi ditu Guaraní akuiferoan, Iberáko estuarioetan, eta beste

500.000 hektarea bereganatu nahi ditu. Leonardo Boffen ustetan, nazioartean etorkizuneko gerrak ur edangarria lortzeko emango dira; *yankiek*, dagoeneko, lehenengo urratsak eman dituzte”, ohartarazi digu autoreak. Badaki dagoeneko gainbeheraren kronika abiatu dela eta etorkizuneko kronika ez dela txikia izango. ■



Echagüeren liburua ezin da Uruguain lortu, nahiz eta Buenos Aires bi ordura egon

“Paper-fabrikek dioxinak eta furanoak sortzen dituzte; oso toxikoak dira eta ez dira denborarekin desagertzen”

Hernán López Echagüe